



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2022/07/20

Uztaila fresko hasi zen, ekaitzen mehatxupean egun askotan. Mahastizainak uda sasoian txingor zaparraden beldur izaten dira, baina ez zen halakorik izan; euri apur bat baino ez zuen bota, eta ez zuen inondik ere arindu maiatz hasieratik dagoen lehorte larria. Uztailaren 10etik aurrera, uda honetako bigarren bero boladan murgilduta egon gara, termometroetan markak hautsiz, eta oraindik ere zifra horietan gaude. Aldi horretan, tenperaturarik beroenak 40^o C-tik gorakoak izaten ari dira Arabako Errioxako zenbait tokitan, baita Aiarako Haranean ere. Gaez ere, ohikoak ez diren balio altuetan izan dira erregistroak.

Logikoa denez, tenperatura altuek mahastiari eragiten diote; izan ere, beroari oso ondo eusten dion laborearen arren, sakonean ur falta dagoenez, laboreak estres handia izaten ari dira. Hori dela eta, landareak estres horren aurrean biziraupenari lehentasuna ematen dio eta ez produktibitateari, eta bizi funtzioak minimizatzen ditu.

Gehien sufritzen ari diren mahastiak landaketa berriak eta lur solteetan eta besorakoan daudenak dira. Mahasti zaharrenak normalean baso sisteman egoten dira, eta sustrai sistema sakonagoa dutenez, hobeto ari dira jasaten beroa eta lehortea.

Paralisi begetatiboa argi eta garbi ikusi ahal izan da mahastiaren egoera fenologiko orokorrean. Landareak estres handia du, eta ur kontsumoa murrizten saiatzen ari denez, jarduera begetatiboa eta aleen hazkuntza moteldu ditu. Gaur egun, Arabako Errioxan mahasti gehienetan mahats mordoa ixten ari da (L), eta mahastiak egoera fenologiko horretan zeudela iragarri genuen duela hiru aste. Mahasti gutxitan hasi da kolore aldaketa (M1 egoera). Beraz, bero bolada honetan ia ez da bilakaerarik izan. Kanpaina oso aurreratuta zetorren, baina bero egin duen aste eta erdi eskas horretan ohiko egutegia berreskuratu dugu ia.

Estres hidrikoa hostoak zimeltzearekin ere adierazten da; hosto batzuk erori ere egiten dira, oinarrikoetatik hasita. Fenomeno horrek datozen egunetan izango duen eragina beroaren iraupenaren eta ur faltaren araberakoa izango da. Hosto azaleraren galerak jarduera fotosintetikoa proportzio berean murrizten du, eta ondorioak eragiten ditu heldzean eta errendimenduetan. Ur eskasiaren eta beroaren beste kalte bat da mahats mordoetako hezetasunak landarearen gainerako ataletara migratzen duela, eta lehortearen aurkako defentsa metodoa da hori ere. Alea ez da tamaina normalera iristen, eta kasurik larrienen lehortzen ere hasten da.

Tenperatura altuen beste eragin bat da mahatsondoan agerian dauden aleetan urradurak agertzen direla, gehiago hostoak kentzeko lanak egin diren mahastietan, eta prebalentzia handiagoarekin barietate sentikorrenen landaketetan, hala nola gracio barietatean.

Aitzitik, ureztatu ahal izan diren eremuetan, ura zegoenez, landareak askoz hobeto jasan du beroa, eta prozesuak aurrera jarraitzen du, eragozpen handirik gabe. Ureztatutako lurzatietako mahastiek itxura hobea dute ekarpen gehigarririk izan ez duten lurzatietakoek baino; zikloa pixka bat aurreratuta dator oraindik ere, eta duela egun batzuetatik hona kolore aldaketa hasia duten mahats mordoak ikus daitezke mahatsondoetan.

Intsektu eta onddoen eraginari dagokionez, mahastiaren zatirik handiena osasuntsu dago; badira oidio foku batzuk, baina ohi bezala, zorionez. Sitsa bigarren belaunaldiko hegaldi betean dago orain, eta ondo kontrolatzen ari da, gero eta gehiago ingurumenari kalterik egiten ez dion teknika baten bidez: sexu nahasketako teknika.

Arabako txakolinaren eremuan, Aiaraldeko egoera Arabako Errioxakoaren antzekoa da: beroa eta lehorte jasaten ari da, eta alearen garapena eta bilakaera txikiak dira. Hango fase fenologikoa ere mahats mordo ixtekoa da (L), eta osasun egoera ona da.

Azken batean, Arabako mahastia, alderdi fitopatologikotik osasuntsu badago ere, ur faltaren eta tenperatura altuen eragin gogorra ari da nabaritzen, eta hori orain arte alearen hazkuntza eskasean eta ziklo begetatiboaren bilakaeraren

moteltzean ikus daiteke. Egoera meteorologikoa noiz normalizatuko eta temperaturak noiz jaitsiko zain gaude denok, eta euria noiz egingo, mahastiaren premiak ase eta aleak loditu daitezten, eta mahastiaren zikloak behar bezala aurrera egin dezan kolore aldaketarantz eta heltzerantz. Egunotan, mahastizainak belar txarrak eta landaredi arrotza kentzen ari dira, eta landare estalkiak altxatzen edo mozten, ura dagoen tokian ureztatzen eta, laster, uztailean eta abuztu hasieran ohikoa den beroa egiten badu eta lehorreak jarraitzen badu, mahastizainek pentsatu beharko dute bakantze lanak egiten hastea, mahats mordoak kentzeko eta geratzen direnak egoera onean heldu eta garatu ahal izateko.

Gaur egungo bero boladarekin, mahastiaren egoera ikusita eta iragartzen diren baldintzekin, errendimenduak murriztu egin daitezke, bai Arabako Errioxan bai eta Aiarako Haranean ere. Badira mahastiak mahats mordo ugari dituztenak, baina ez da espero gainditzetik Errioxako JDKren Kontseilu Arautzaileak kanpaina honetarako aurreikusitako gehieneko errendimenduak (% 95 beltzetan eta % 100 zurietan), ez eta Arabako Txakolina JDren ohiko mugak ere (% 100). Hala eta guztiz ere, mahatsa bildu arte bi hilabete geratzen dira gutxi gorabehera, eta, beti bezala, meteorologiak zehaztuko du azken emaitza. Mahastiak egunero erakusten digu bereziki erresilientea dela eta kontrako baldintzak gainditzeko gai dela, baldin eta behar bezala lantzen bada, eta benetan profesionalak diren mahastizainak ditugu aurrean.

Guardia, 2022ko uztailearen 20a

MAHASTIZAINAZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
AFA-KO NEKAZARITZA SAILA